



OÑATIKO UNIBERTSITATEKO ERRETAULAREN
AZTERKETA HISTORIKO-ARTISTIKOA
ESTUDIO HISTÓRICO-ARTÍSTICO DEL RETABLO
DE LA UNIVERSIDAD DE OÑATI

Pedro Echeverría

1





Oñatiko unibertsitateko kaperako erretaula gaur egun, zaharberrizte lanen ondoren.

Retablo de la capilla universitaria de Oñati en la actualidad, una vez restaurado.

Weisek 1927ko data goiztiarrean Sancti Spiritus erre-taula Pierres Picarti atxiki bazion ere¹, geroago Oñateko unibertsitatea aztergai izan duten historialari eta ikertzaile gehien-gehienek gehiago jo dute fundatzailearen nortasunera, fatxadako eta patioko programa profanora, edota alderdi dokumental, historiko eta akademikoetara. Historialari eta ikertzaile horien lanetan, hitz askorik ez dugu aurkituko, are bat bera ere ez zenbaitetan, erretaulari buruz, Euskal Herriko Lehen Errenazimentuko multzorik bikainenetako bat den arren².

Elementu honi buruzko aipamenik zehatzenak Martín

A ún cuando en una fecha tan temprana como 1927 Weise atribuyó el retablo del Sancti Spiritus a Pierres Picart¹, la práctica totalidad de los historiadores y estudiosos que se han ocupado con posterioridad de la universidad de Oñate se han centrado más en la personalidad de su fundador, el programa profano de su fachada y patio, o en aspectos documentales, históricos y académicos. En ellos se dedica tan solo unas palabras testimoniales o incluso se omite cualquier alusión a un retablo que, sin embargo, constituye uno de los conjuntos más sobresalientes del Primer Renacimiento en el País Vasco².

¹ WEISE, G.: Spanische Plastik aus sieben Jahrhunderten. Band II. Text. Gryphius Verlag. Reutlingen, 1927, 111-113. orr. Pierres Picart y el retablo de la capilla de la Universidad. Band II. Abbildungen. Tafel 130-135. orr.

¹ WEISE, G.: Spanische Plastik aus sieben Jahrhunderten. Band II. Text. Gryphius Verlag. Reutlingen, 1927, pp. 111-113. Pierres Picart y el retablo de la capilla de la Universidad. Band II. Abbildungen. Tafel 130-135.

Gonzálezek eginak dira. Honek balorazio labur baina zehatz-zehatz bat eskaini zion Errenazimentuko erretaula hispaniarren tipologiei buruz egin zuen azterketan. Osterantzean, ama Arrazolak egin aipamenak ditugu, ezen aipatutako atxikipena berresteaz gain erretaularen lehen deskribapen bat egin zuen. Aipamenik berriena, berriz, Euskal Herriko Erretaulai buruzko lanean aurkituko dugu, kalifikatzenko moduko multzoen artean sartu eta, horrenbestez, dagokion fitxa monografikoak eskaini baitzieten³. Erretaula zaharberitzeko lanak direla eta eginiko eskuarteko azterketa honetan, berriz, dokumentu bidez berretsiko dugu Pierres Picarten autoretza, eta obra honetan izan zituen laguntzaileetako batzuen izenak proposatuko ditugu, pintore-urreztatzaileenak argitara ateratzearekin batera. Ondoren, unibertsitateko kaperako erretaularen alderdi guztiei buruzko lehenbiziko azterketa monografikari ekingo diogu.

Oñatiko unibertsitateko kaperako erretaula 1940an. Aguirrebalzategui bilduma. Gipuzkoako Protokolo Agiritegi Historikoa (GPAH). Oñati.



Las referencias más concretas a este mueble las encontramos en Martín González, quien le dedicó una escueta pero precisa valoración en su estudio sobre las tipologías del retablo hispano del Renacimiento, la madre Arrázola, que refrendó la citada atribución y realizó una primera descripción del mismo, y en la más reciente obra sobre los Retablos de Euskadi, donde fue escogido como uno de los conjuntos dignos de calificación, por lo que cuenta con su respectiva ficha monográfica³. En el presente estudio con motivo de la restauración del retablo confirmamos documentalmente la autoría de Pierres Picart, proponemos los nombres de algunos de sus colaboradores en esta obra y desvelamos los de los pintores-doradores. A continuación, elaboramos el primer estudio monográfico en todos sus frentes del retablo de la capilla universitaria.

Retablo de la capilla universitaria de Oñati en 1940. Fondo Aguirrebalzategui. Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa (AHPG). Oñati.

² LIZARRALDE, J.A.: Historia de la Universidad de Sancti Spiritus de Oñate. Tolosa, 1930, 100. or.

ZUMALDE, I.: Historia de Oñate. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1957, 612. or.

Oñatiko Historia eta arte bilduma / Inventario histórico-artístico del Valle de Oñati. Oñatiko Udal Liburutegi Publikoa. Gasteiz, 1982, 221 eta 224. orr.

GONZÁLEZ DE ZARATE, J. M^a eta J. RUIZ DE AEL, M.: Humanismo y arte en la Universidad de Oñate. Ephialte Institutua. Gasteiz, 1989, 85. or. Erretaularen lamina.

GONZÁLEZ DE ZARATE GARCÍA, J. M^a: Arquitectura e iconografía en la Universidad de Oñate. Sendoa. Iruña, 1992, 60-63. orr.

FORNELL'S ANGELATS, M.: La Universidad de Oñati y el Renacimiento. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995, 147-149. orr. Kapera eta erretaula. Gipuzkoako Kolegio honi eskainitako liburu batean obra honi buruz eginiko deskribapenik zabalena da.

³ MARTÍN GONZÁLEZ, J.J.: "Tipología e iconografía del retablo español del Renacimiento". B.S.A.A. (1964), 24. or.

ARRAZOLA ECHEVERRIA, M^a A.: Renacimiento en Guipúzcoa. Tomo II. Escultura. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1988, 41-45. orr.

ECHEVERRIA GOÑI, P.L. (zuz. eta koord.): Erretaulak / Retablos. Euskadi. II. alea. Euskal Kultura Ondarearen Zentroko Katalogoak. Gasteiz, 2001, 593-600. orr., 23 zk.ko fitxa.

² LIZARRALDE, J.A.: Historia de la Universidad de Sancti Spiritus de Oñate. Tolosa, 1930, p. 100.

ZUMALDE, I.: Historia de Oñate. Diputación de Guipúzcoa. San Sebastián, 1957, p. 612.

Oñatiko Historia eta arte bilduma / Inventario histórico-artístico del Valle de Oñati. Biblioteca Pública Municipal de Oñati. Vitoria, 1982, pp. 221 y 224.

GONZÁLEZ DE ZARATE, J. M^a y J. RUIZ DE AEL, M.: Humanismo y arte en la Universidad de Oñate. Instituto Ephialte. Vitoria, 1989, p. 85. Lámina del retablo.

GONZÁLEZ DE ZARATE GARCÍA, J. M^a: Arquitectura e iconografía en la Universidad de Oñate. Sendoa. Pamplona, 1992, pp. 60-63.

FORNELL'S ANGELATS, M.: La Universidad de Oñati y el Renacimiento. Diputación Foral de Gipuzkoa. Donostia-San Sebastián, 1995, pp. 147-149. La capilla y el retablo. Se trata de la descripción más amplia de esta obra en un libro dedicado al Colegio guipuzcoano.

³ MARTÍN GONZÁLEZ, J.J.: "Tipología e iconografía del retablo español del Renacimiento". B.S.A.A. (1964), p. 24.

ARRAZOLA ECHEVERRIA, M^a A.: Renacimiento en Guipúzcoa. T.II. Escultura. Diputación Foral de Guipúzcoa. San Sebastián, 1988, pp. 41-45.

ECHEVERRIA GOÑI, P.L. (dir. y coord.): Erretaulak / Retablos. Euskadi. T. II. Catálogos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco. Vitoria-Gasteiz, 2001, pp. 593-600, ficha nº 23.



Oñati. San Migelen parroquia.
On Rodrigo Mercadoren mukulu
otoizgilea bere hilobian, Jakinduria
eta Antso Sanchezekin.

Oñati. Parroquia de San Miguel.
Busto orante de don Rodrigo Mercado
en su sepulcro, con la Sabiduría y
Sancho Sánchez.

I . TESTUINGURU HISTORIKOA

I.1. Avilako apezpikua, mezenas eta aholkulari

XVI. mendearren lehen erdialdea **On Rodrigo Mercado Zuazola**-aren ibilbide eklesiastiko, politiko eta kultural bizi-biziaren garaia izan zen; bera izan zen XVI. mendeko Gaztelan euskaldunik unibertsalenetako bat⁴. Mallorcako (1511-1530) eta Avilako (1530-1548) apezpikua izan bazen ere, oso denbora gutxi eman zuen egokitu zitzaitzkon apezpiku-barruti horietako egoitzetan. Aldi berean, Fernando II.a Katolikoaren eta Karlos I.aren zerbitzuan osatutako curriculum politikoa nahiakoa adierazgarria da berez, ezen Valentzian inkisidore izan baitzen, Nafarroako Errege Kontseiluko buru Erresuma Zaharraren anexioaren ostean, eta Granadako Kantzelaritzako buru (1525-1530); eta bere bizitzan zehar bi aldi, aipatu errege bien kontseilarri izan zen. Bere kargu, errenta eta aberastasunetako asko, bere ortodoxia eta zorroztasun kristauagatik eta erregeren zerbitzari prestu eta leial gisa burutu lanagatik izan zituen izendapen eta errege dohainen emaitza dira.

Gipuzkoar ospetsu hau bete-betean sartzen da Errenazimentuko ideal humanistan, Elizaren eta enperadorearen zerbitzurako bete zituen karguez gain doktore baitzen zuen-

I . CONTEXTO HISTÓRICO

I.1. El Obispo de Ávila, mecenas y mentor

La primera mitad del siglo XVI contempla la intensa trayectoria tanto eclesiástica como política y cultural de **don Rodrigo Mercado de Zuazola**, uno de los vascos más universales en la Castilla del siglo XVI⁴. Aún cuando fue obispo de Mallorca (1511-1530) y Ávila (1530-1548), residió muy poco tiempo en las sedes de las diócesis respectivas. Paralelamente, su currículum político al servicio de Fernando el Católico y Carlos I es de por si elocuente, pues fue inquisidor en Valencia, presidente del Consejo Real de Navarra tras la anexión del Viejo Reino, y presidente de la Chancillería de Granada (1525-1530), convirtiéndose en dos fases de su vida en consejero real de ambos monarcas. Muchos de sus cargos, rentas y fortuna son fruto de nombramientos y mercedes reales por su ortodoxia y celo cristianos y como servidor leal y competente de su majestad.

Este ilustre guipuzcoano encarna perfectamente el ideal humanista del Renacimiento pues, además de sus cargos al servicio de la Iglesia y el emperador, era doctor en ambos derechos, teólogo, filósofo, matemático, cosmógrafo,

⁴ LIZARRALDE, J.A.: Op. aip., 1-30. orr. Biografía de don Rodrigo Saez de Mercado de Zuazola.

FORNELL ANGELATS, M.: "Rodrigo Mercado de Zuazola, un mecenazgo del Renacimiento guipuzcoano". Revisión del Arte del Renacimiento. Ondare, 17 (1998), 167-175. orr.

⁴ LIZARRALDE, J.A.: Op. cit., pp. 1-30. Biografía de don Rodrigo Saez de Mercado de Zuazola.

FORNELL ANGELATS, M.: "Rodrigo Mercado de Zuazola, un mecenazgo del Renacimiento guipuzcoano". Revisión del Arte del Renacimiento. Ondare, 17 (1998), pp. 167-175.



Oñati. Sancti Spiritusen Unibertsitateko fatxada.

Oñati. Fachada de la Universidad del Sancti Spiritus.

bide bietan, eta teologo, filosofo, matematikari, kosmografo, hizlari eta idazle⁵. Gortearen politikaren betearazle, esate baterako juduen aukako prozesuetan, kalbinismoaren aurreko brida eta komuneroen aukako sostengu, Euskal Herrian lehenbiziko arte errenazentista sartuko zuen, imperio ideiaren berreste plastiko gisa, jaiotteri zuen Oñatin berak fundatutako Sancti Spiritus Ikastetxean. Plangintzaroko, trazak aztertzeko eta lanak egiteko, Rodrigo Gil de Hontañón, Diego de Siloe eta Pierres Picart maisu handiengana jo zuen, eta hauekin batera artista gaztelau pila bat ere inguratuz zuen –hauetako batzuk avilarak ziren–; gaztelaukein apaindurako elementuak kontratatu zituen, Valladoliden, eta horrenbestez, artista horiek Gipuzkoara etorri behar izan zuten.

Aipatutako apezpiku-barrutietan emandako denboran ez zuen mezenasgo aztarna adierazgaririk utzi, eta horregatik, **Oñatiko Sancti Spiritus ikastetxea** izango zen haren izena betiko gordeko zuena. Aurretik eginiko gestioak eta eraikuntza lanen historia ondo ezagunak dira⁶: lehenek sei urte

orador y escritor⁵. Brazo ejecutor de la política de la Corte en asuntos como los procesos a judíos, freno del calvinismo y apoyo contra los comuneros, va a ser también el introductor en el País Vasco del primer arte renacentista como afirmación plástica de la idea imperial en el Colegio del Sancti Spiritus que fundó en su villa natal de Oñati. Para su planificación, exámen de las trazas y ejecución recurrió a maestros de la categoría de Rodrigo Gil de Hontañón, Diego de Siloe o Pierres Picart y a una buena nómina de artistas castellanos –varios de ellos abulenses–, con los que contrató los elementos del exorno en Valladolid y que, con este motivo, se desplazaron a la localidad guipuzcoana.

De su paso por las diócesis citadas no dejó huellas significativas de mecenazgo, siendo el **Colegio menor del Sancti Spiritus de Oñati** la obra que inmortalizará su nombre. Tanto las gestiones preliminares como la historia constructiva son bien conocidas⁶, prolongándose las

⁵ LIZARRALDE, J. A.: Op. aip., 20. orr.

FORNELL ANGELATS, M.: La Universidad de Oñati..., 79. or. Transcripción del latín de la semblanza de don Rodrigo Mercado por Lucio Marineo Sículo, de 1530.

⁶ LIZARRALDE, J.A.: Op. aip., 58-82. orr. (proyecto), 83-102. orr. (eraikuntza) eta 103-130. orr. (testamento).

FORNELL ANGELATS, M.: La Universidad de Oñati..., 87-110. orr. Primeros pasos y construcción.

5 LIZARRALDE, J. A.: Op. cit., p. 20.

FORNELL ANGELATS, M.: La Universidad de Oñati..., pp. 79. Transcripción del latín de la semblanza de don Rodrigo Mercado por Lucio Marineo Sículo, de 1530.

6 LIZARRALDE, J.A.: Op. cit., pp. 58-82 (proyecto), 83-102 (construcción) y 103-130 (testamento).

FORNELL ANGELATS, M.: La Universidad de Oñati..., pp. 87-110. Primeros pasos y construcción.

eraman zituzten, eta lanak berak 1540an hasi eta, hatua barne, ia-ia ez ziren amaitu sustatzailea bera 1548an hil zen arte. Oñatiko unibertsitate-eskolarako Sancti Spiritus titulua aukeratu izanak berak badu oinarri bat, tradizio sendo bat alegia, honen arabera kristautasunaren jakinduriaren zabalkundea, Errenazimentuaz geroztik, Espiritu Santuak irudikatzen baitu, berori delako ezagutza eta jakinduria ororen iturri. Horrela ikus dezakegu, esate baterako, Alcalá de Henaresko Unibertsitateko San Ildefonso Eskola Nagusiko fatxadan (1537-1553), ezen honetan balaustradaren ardatzetan eta muturretako pinakuluetan hamabi zuzi edo gar dira koroa, Espiritu Santuak apostoluei gogo-barrenean eragin zizkienen sinbolo gisa. Oñatiko San Miguel elizako Pietatearen kaperan On Rodrigo Mercado Zuazolak duen hilobi-erretaulan⁷, Diego de Siloek 1528 eta 1529 bitartean landuan, arkosolioaren hondoan bi elementu nabamentzen dira, Espiritu Santuaren usoia laino eta aingeru-buruen artean dagoen erliebe bat eta, apezpiku belaunikatuaren atzean,

primeras durante seis años, en tanto que las fábricas se iniciaron en 1540 y no se concluyeron, incluido el ajuar, hasta prácticamente el fallecimiento del promotor en 1548. La titulación elegida del Sancti Spiritus para el colegio universitario de Oñati responde a una asentada tradición según la cual la difusión del saber de la cristiandad está representada desde el Renacimiento por el Espíritu Santo, de quien procede todo conocimiento y sabiduría. Así lo podemos ver, por ejemplo, en la fachada del Colegio Mayor de San Ildefonso de la Universidad de Alcalá de Henares (1537-1553), en la que coronan los ejes de la balaustrada y los pináculos extremos doce antorchas o llamas de fuego, símbolos de las que infundió el Espíritu Santo sobre los apóstoles. En el sepulcro-retablo de don Rodrigo Mercado de Zuazola⁷ en su capilla de la Piedad en la iglesia de San Miguel de Oñati, que labrara Diego de Siloe entre 1528 y 1529, destacan en el fondo del arcosolio un relieve con la paloma del Espíritu Santo entre nubes



Oñati. Sancti Spiritus
Unibertsitateko klaustroa.

Oñati. Claustro de la Universidad del
Sancti Spiritus.

Jakinduriaren alegoria bat; jarrera berdinean errepikatzen da, apezpikuari bultzada emanez bezala, portadan ere, ikastetxe bereko garaipen-arku gisa. XVI. mendeko unibertsitateen eduki erlijioso garrantzitsua, kristau jakinduriaren benetako tenpluak ziren, ageri-agerian dugu, berriro ere, Oñati honetan ezen, apezpiku bat izan zuelarik sustatzai-

y cabezas de ángeles y, tras el obispo genuflexo, una alegoría de la Sabiduría, que se repite en actitud similar, impulsando al obispo, en la portada a modo de arco de triunfo del propio Colegio. El fuerte componente religioso de las universidades del siglo XVI, verdaderos templos de la sabiduría cristiana, se hace patente una vez más en esta de

⁷ Obra hau Siloeri atxiki zion GOMEZ-MORENO, M-k, Ian honetan: Las águilas del Renacimiento español (1945). Xarait. Madrid, 1983, 62-64. orr.

GÓMEZ-MORENO, M^a. E.: "El Sepulcro de D. Rodrigo Mercado en Oñate". Oñate, I (1950), 40-46. orr.

GONZÁLEZ DE ZÁRATE, J.M^a.: La Literatura en las Artes. Iconografía e Iconología en las Artes en el País Vasco. Etor. Donostia, 1987, 173-181. orr. Programa ikonografikoari buruzko azterketa.


⁷ Esta obra fue atribuida a Siloe por GOMEZ-MORENO, M.: Las águilas del Renacimiento español (1945). Xarait. Madrid, 1983, pp. 62-64.

GÓMEZ-MORENO, M^a. E.: "El Sepulcro de D. Rodrigo Mercado en Oñate". Oñate, I (1950), pp. 40-46.

GONZÁLEZ DE ZÁRATE, J.M^a.: La Literatura en las Artes. Iconografía e Iconología en las Artes en el País Vasco. Etor. Donostia San Sebastián, 1987, pp. 173-181. Estudio del programa iconográfico.

Sancti Spiritusen Unibertsitatearen oinplanoa. D. Lizaurren marrazkia, 1929koा.


Planta de la Universidad Sancti Spiritus. Dibujo de D. Lizaur de 1929.



Kapera / Capilla

Erretaularen kokapena / Ubicación del retablo


Sancti Spiritusen Unibertsitateko fatxada nagusia eta ebakidura. D. Lizaurren marrazkia, 1929koा.
Fachada principal y sección de la Universidad Sancti Spiritus. Dibujo de D. Lizaur de 1929.



FACHADA PRINCIPAL

ESCALA - 2 : 100

UNIVERSIDAD DE OÑATE
Estado actual - Junio 1929



SECCIÓN

ESCALA - 2 : 100

UNIVERSIDAD DE OÑATE
Estado actual - Junio 1929

le Espíritu Santuaren adbokaziopean, eta enperadorearen babespean zelarik –honek armaría ikusten baitugu portada nagusian–, bertan teología ikasketak ziren nagusi.

Apezpikuak Oñati arteen sustapenaren arloan egindako lanari buruz hemen eskaintzen ditugun **datu dokumentalik berritzaileenak** Valladolideko Kantzlaritzan 1548an izandako auzi batetik ateratakoak dira; izan ere honetan dago jasota Avilako apezpikuak eta hainbat artistak San Miguel parrokiako eta Oñatiko Unibertsitateko Pietatearen kaperetako hornidura eta hatuari buruz izenpetu hitzarmen-eskriturak eta kitantza edo ordainketa-gutun guztiak jasotzen dituen memorial bat⁸, prelatu ospetsuaren testamentuaren traslado batekin eta 1534az geroztik Valladoliden egin zuen egonaldian zehar hurreko zituen pertsonaien izenekin batera. Bere testamentuan, 1548ko urtarrilaren 25ean Valladoliden data-tuan, bere gorputza eramatea, baltsamatzea eta Oñati zeukan kaperan hobiratzea xedatzen zuen, Arantzazuko Andre Mariaren eta Bidaurreta komentuei eta Oñatiko beatei 1.000 bana marabediko limosnak eta Unibertsitateari zentsuetako 25.000 maraiko ematearekin batera. Bere ondasun guztien jaraunsle unibertsal Sancti Spiritus Ikastetxeko errektore eta ikasleak utzi zituen. Datu hauek osatzeko, On Rodrigoren ondasunen inventariokoak erabil daitezke, 1548an egin baitzuten, prelatuaren idazkari eta testamentubetearazlea zen Lucas Garnica batxilerrak eskatutu⁹.

Beste dokumentazio idatzirik ezean, eta Valladoliden eskribautza zeukan Pedro de Santesteban notarioaren eskritura publikoak desagertu direla –honekin egiten zuen lan, zorioneko gara aiaptu zerrenda hori gure eskuetara iritsi dela. Prozesu honetan, eskribauak On Rodrigoren testamentu-betearazleei eskatzen zien 200 dukat ordaintza, hark aginduta egin zituen eskritura publikoengatik. Hilburuko-zain gisa apezpikuaren anaia Antso Sánchez de Mercado lizentziatura, klerikoa berau ere, Lucas Garnica batxilerra Avilako apezpikuaren senide, Joan Rodríguez Otalora elizbarrutiko entzutegiko notario eta maiordomo faktore, eta Escudero doktorea ageri dira.

Frogetarako aurkeztutako lekuoen artean, berriz, prelatu gipuzkoarraren hurreko klerikoak agertu ziren, hala nola ganbarari zuen Frantzisko Luzuriaga, bere maiordomo Antonio Abad Gaona eta bere beste zerbitzari batzuk, Francisco Cedillo eta Francisco Carvajal kasu, 1534an Vallado-

Oñati, promovida por un obispo bajo la advocación del Espíritu Santo, puesta bajo la tutela del emperador, cuyo escudo campea en la portada principal, y en la que predominaban los estudios de teología.

Los **datos documentales más novedosos** sobre su promoción de las artes en Oñati que aportamos aquí proceden de un pleito de la Chancillería de Valladolid de 1548 que incorpora, junto a un traslado del testamento del ilustre prelado y los nombres de los personajes de su círculo próximo durante su residencia en Valladolid desde 1534, un memorial con todas las escrituras de convenio y cartas de pago suscritas entre el obispo de Ávila y diferentes artistas sobre la dotación y el ajuar de las capillas de la Piedad en la parroquia de San Miguel y de la Universidad de Oñati⁸. En su testamento, fechado en Valladolid el 25 de enero de 1548, disponía el traslado, embalsamamiento y entierro de su cuerpo en su capilla de Oñati, limosnas de 1000 maravedís a cada uno de los conventos de Nuestra Señora de Aranzazu, Bidaurreta y las beatas de la villa de Oñati y una donación de 25000 maravedís de censos a la Universidad. Dejó como herederos universales de todos sus bienes al rector y alumnos del Colegio del Sancti Spiritus. Estos datos pueden ser complementados con los del inventario de los bienes de don Rodrigo que, a su muerte, fue realizado en 1548 a instancias del bachiller Lucas de Garnica, secretario y testamentario del prelado⁹.

En ausencia de otra documentación directa y desaparecidas las escrituras públicas de Pedro de Santesteban, notario con escribanía abierta en Valladolid, con el que trabajaba, afortunadamente ha llegado a nuestros días la citada relación. En este proceso, el escribano reclamaba a los ejecutores testamentarios de don Rodrigo el pago de 200 ducados por las distintas escrituras públicas que había elaborado por encargo suyo. Figuran como albaceas su hermano, el licenciado Sancho Sánchez de Mercado, asimismo clérigo, el bachiller Lucas de Garnica, familiar del obispo de Ávila, Juan Rodríguez de Otárlora, notario de la audiencia episcopal y su mayordomo factor, y el doctor Escudero.

Entre los testigos presentados a las pruebas, desfilan clérigos cercanos al prelado guipuzcoano como su camareño Francisco de Luzuriaga, su mayordomo Antonio Abad de

⁸ Valladolideko Errege Kantzlaritzaren Artxiboa. Errege Entzutegia. Auzi zibilak. Lapuerta eskribautza. Auzi ahantziak. C 738/3. Valladolideko notario Pedro de Santesteban Avilako apezpikuaren testamentu-betearazleen aurka, eskritura eta kontratuaren ordainketa dela eta. Honen barnean dago honako: “Memorial de las escrituras que pasaron ante mi, P(edro) de S(an)testevan, notario, del de buena memoria don R(odrigo) de Mercado, obispo que fue de Ábila”.

⁹ Ibid. Quevedo eskribautza. Auzi amaituak. 160/4. Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateko errektore eta ikasleak, On Rodrigo de Mercadoren ondasunen jaraunsle unibertsalak, On Diego Ramiro Burgosko apezpikutegiko probisore eta Unibertsitatearen lehengo errektorearen aurka, ondasunen itzultze eta ordainketa dela eta (1561-1566), 150-159. orr. Avilako apezpikuaren ondasunen inventarioa.

⁸ Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Real Audiencia. Pleitos civiles. Escribanía Lapuerta. Pleitos olvidados. C 738/3. Pedro de Santesteban, notario de Valladolid, contra los testamentarios del obispo de Ávila sobre el pago de escrituras y contratos. Incluye un “Memorial de las escrituras que pasaron ante mi, P(edro) de S(an)testevan, notario, del de buena memoria don R(odrigo) de Mercado, obispo que fue de Ábila”.

⁹ Ibid. Escribanía Quevedo. Pleitos fenecidos. 160/4. El rector y los colegiales de la Universidad del Sancti Spiritus de Oñate, herederos universales de los bienes de don Rodrigo de Mercado, contra el doctor don Diego Ramiro, provisor del obispado de Burgos y antiguo rector de la Universidad, sobre restitución y pago de los bienes (1561-1566), fols. 150-159. Inventario de bienes del obispo de Ávila.

lida iritsi zenetik ondoan izan baitzituen hauek 1548an zenu zen arte; azken urte honetan, Oñatiraino eskoltatu zuten On Rodrigoren gorputua zeraman hilkutxa. Edonola ere, bitxia eta oso adierazgarria da Pedro de Santestebanen zerbitzuan ari zen Antonio Ortiz de Vergara eskribau gaztearen adierazpena ezen, egiteko agindu zioten memorialaren zabalak gainditu egin zuelarik, “haserretu egiten nintzen –diosku berak– Avilako apezpiku horren hainbeste eskritura ikustean, izugarrizko lana ematen zidan eta horiek ateratzeko”. Bere hilburukoan ondasunen jaraunsle unibertsal Sancti Spiritus Unibertsitateko errektore eta ikasleak utzi zituen, On Joan Abad Oxirondo ere aipatzen da, 1548an berau zen-eta ikastetxe horretan errektore.

Inventarioak Valladolideko aldean protokolizatutako 129 escrituras públicas osatu zerrenda bat ematen digu, 1534 eta 1548 bitarteko alegia; hauek bi multzotan bil ditzakegu. Lehen multzoan, ugariena ere bada, Avilako apezpiku-barrutiko errentamenduetako emaitzei buruzko escriturak daude, bai parrokiei bai artzapezpiku-barrutiei dagozkienak, onuren errentak jasotzen dituztenak, eta baita 1539an Lucas Garnica batxilerrari Leongo apezpikuaren gandik 500 dukateko pentsio bat kobratzeko emandako ahalorde bat ere. Eskritura hauetako askotan ahala ematen die bere zerbitzariei, esate baterako Joan Zurueta, Joan Altzibar, Gregorio Rodríguez, Frantzisko Luzuriaga, Joan Girondo eta Joan Pérez Bikuñari, edota bere ganbarazain Andres Girondori; eta bere kontaizaile Joan de la Vega emandako auzi bat ere jasota dago. 1543an apezpikuaren beste ahalorde bat kontsignatuta dago, bere anaia Antso Sánchez de Mercadoren aldeko bat, kutxa batetik 4.000 dukat ateratzeko; eta hurrengo urtean brebe edo buldatxo baterako eta berreste baterako baimena, Avilako apezpikuak 2.000 dukateko benefizioak izateko.

Memoriala, gainera, zerrenda bikaina dugu, goitik behera ageri baitira Avilako apezpikuak bere hobiratze-kaperako eta ikastetxeko apaindura eta hornidurarako izan zituen maisuak. 1537ko protokoloen artean, hargin-maisu Domingo Guerrak apezpikuaren alde emandako ordainketa-gutun bat inventariatu zuten; Domingo hori zen unibertsitateko fabriken arduradun eta egilea, eta bere lanean Rodrigo Gil de Hontañón egindako eta ikuskatutako trazak jarraitu zituen. 1536 eta 1537ko dataz, Avilako apezpikuaren eta liburu-inprimatziale batzuen arteko obligazio-eskritura batzuk daude jasota, eta tartean da azken urte horretan Pierres Esteban izeneko batek “*breibarioe*” buruz emandakoa. 1543an izenpetu zen On Rodrigo Mercadoren eta Avilako bizilagun Kristóbal Xibaja eta Frantzisko Salzalays zuraje-arotzen arteko kontrataua, armari eta guztiko haritzeko kasetoidura mudejarrei buruzkoa; Ian hauen artean zegoen, esaterako, eskailera-sabai ikusgarria bera. Obra hau 1.020 dukatetan tasatu zuten Pierres Picartek, eskultore-apaintzailea bera, eta Martin Saez Soraluze arotzak¹⁰. 1535ean Andrés Espinosak, Palentziako bizilagun

Gaona y otros criados suyos que, como Francisco Cedillo y Francisco de Carvajal, le acompañaron desde su llegada a Valladolid en 1534 hasta su muerte en 1548, año en el que escoltaron el féretro con su cuerpo hasta la villa de Oñati. Resulta de todo punto curiosa y expresiva la declaración de Antonio Ortiz de Vergara, joven escribiente al servicio de Pedro de Santesteban quien, abrumado por el extenso memorial que le había encargado hacer, “se enojaba –nos dice– de ver tantas escripturas del dicho obispo de Ávila por el trabaxo que le daban en sacarlas”. Como en su testamento había nombrado herederos universales de sus bienes al rector y colegiales de la Universidad del Sancti Spiritus, se cita también a don Juan Abad de Oxirondo, rector en 1548 del citado colegio.

El inventario nos depara una relación de 129 escrituras públicas protocolizadas en su etapa vallisoletana entre 1534 y 1548 que podemos agrupar en dos tipos. Al primero y más numeroso pertenecen las que tratan de arrendamientos de frutos del obispado de Ávila, tanto de parroquias como de arciprestazgos, rentas de beneficios y un poder dado en 1539 al bachiller Lucas de Garnica para cobrar 500 ducados de una pensión del obispo de León. En muchas de estas escrituras da poder a criados suyos como Juan de Zurueta, Juan de Alcibar, Gregorio Rodríguez, Francisco de Luzuriaga, Juan de Girondo y Juan Pérez de Vicuña, su camarero Andrés de Girondo o un pleito otorgado por su contador Juan de la Vega. En 1543 se consigna otro poder del obispo a su hermano Sancho Sánchez de Mercado para sacar 4000 ducados de un cofre, y al año siguiente la autorización de una breve y confirmación para poder tener el obispo de Ávila 2000 ducados de beneficios.

El memorial se convierte además en una excepcional relación de los maestros con los que el obispo de Ávila contó para el exorno y dotación de su capilla de enterramiento y del colegio. Entre los protocolos de 1537 se inventaría una carta de pago dada a favor del obispo por el cantero maese Domingo (Guerra), responsable y autor material de las fábricas de la universidad, siguiendo trazas elaboradas o examinadas por Rodrigo Gil de Hontañón. Fechadas en 1536 y 1537 se recogen algunas escrituras de obligación entre el obispo de Ávila e impresores de libros, como la que otorgó en el último año un tal Pierres Esteban “*sobre los briarios*”. En 1543 se formalizó el contrato entre don Rodrigo Mercado y los carpinteros de armazón Cristóbal Xibaja y Francisco Salzalays, vecinos de Ávila, sobre los artesonados de roble mudéjares con sus escudos, como el espectacular cielo de la escalera. La obra sería tasada en 1020 ducados por Pierres Picart y Martín Saez de Soraluce, entallador y carpintero respectivamente¹⁰. En 1535 Andrés de Espinosa, pintor vecino de Palencia, se comprometía a dorar la espectacular reja labrada del romano de la capilla.

¹⁰ LIZARRALDE, J.A.: Op. aip., 102. or.

¹⁰ LIZARRALDE, J.A.: Op. cit., p. 102.

eta margolariak, konpromisoa hartu zuen kaperako erromatar erako burdinsare landu ikusgarria urezatzeko.

1545ean, apezpikuaren ondasun guztiak Oñatiko Ikastetxeari emateko eskritura bat dago erregistratuta. Santestebanek emandako eskrituren zerrenda 1548an amaitzen da, urte horretan zendo zen On Rodrigo, honek etxean zeukan zilarraren eta diruaren inventarioaz eta pisatzeaz, horrelaxe egitea agindu baitzuen On Rodrigoren testamentu-betearazle Garnica batxilerrak. Eta lan hauetan zortzi egun eman zituen Santestebanek. Osterantzean, inventarioa Arrieta entzule-lizentziatuari eman zion, ondasun guztien tasazio batekin batera. Alabaina, memorial honetako eskritura publikoen goiburu laburrek eskaientzen dizkigutenean garrantzitsuenak Oñatiko bi erretaula handien data zehatzak eta egile, eskultore-apaintzaile eta pintore-urreztazaileen izenak dira.

Valladolideko etxean aurkitutako ondasunen inventarioan, liburu pila handi bat eta arte kontuen gaineko hainbat eskritura daude kontsignatuta; eta eskritura hauen artean, Pierres Picartek Unibertsitatean egin lanei buruzko hirurak, hala nola “Ikastetxeko lanari buruz maisu Pierres Picartekin egin kontratu bat”, “Ikastetxeko pilareei buruz maisu Pierreskin egin kontratu bat”, eta “Pierres Picart eskultore-apaintzailearekiko beste ordainduko bat”. Beste batzuek hilobia aipatzen dute, esaterako “Avilako apezpikuarentzako beste eskritura bat, haren hilobiaren entregari buruz, Antonio Rogelek sinatua” dioenak; edota eraikineko arotzia, “Martin Soraluze arotz-maisuaren kontrataua, Pedro López Lazarragak sinatua” dioenak; sarrailagintza ere bai, “Ikastetxeko sarrailgintzako lanei buruz Reinaldo Trociren izeneko ordainduko eta bermea” jasotzen duenak, eta baita dagokionean aipatuko ditugun erretaulako margotze eta ureztatze lanak ere¹¹.

I.2. Pietatearen erretaulari buruzko datu berriak

Oñatiko San Miguel parrokiian, ebanjelio aldean, bere kaperan dagoen Pietatearen erretaulari dagokionez, lehendik baguen trazagilearen izenaren berri, Gaspar de Tordesillas baitzen, eta egile materialak ere ezagutzen genituen, herriko bertako eskultore-apaintzaile Andres Mendiguren, Miguel Iragorri eta Joan Olazaran (pintorea seguruenik) zirenta, Joan Aiala II.a imajinagin gasteiztarrarekin batera. 1533ko ekainaren 4an Rodrigo Mercadok 3.000 ducateko emaitza bat egin zuen, aipatu elizako ebanjelio aldeko bere hilobi-kaperarako erretaula bat eta burdinsare bat egiteko. Apezpikuaren beraren txosten bat esker, jakin badakigu taila lana amaituta zegoela 1536ko uztailaren 26rako¹².

¹¹ V.E.K.A. Auzi zibilak. Quevedo. Amaituak C 160/4. Avilako apezpikuaren ondasunen inventarioa, 155-158. orr.

Ibid. Taboada. Auzi ahantziak C L,31. Juan Lopez Olarriaga Martin Saez Soraluzeren aurka, arotz-maisuak biak, beronen ondasunen exekuzioari buruz, Oñatiko Unibertsitateko arotzeria lanengatik zor zikzion 60 dukatengatik.

¹² ARRAZOLA ECHEVERRIA, M^a A.: Op. aip., 34-35. orr.

En 1545 se registra una escritura de donación de todos los bienes del obispo para el Colegio de Oñati. La relación de escrituras expedidas por Santesteban concluye en 1548, año del fallecimiento de don Rodrigo, con un inventario y pesaje de la plata y del dinero de su casa por mandato de su testamentario, el bachiller Garnica, labor en la que invitó ocho días, para entregárselo al oidor licenciado Arrieta, y con una tasación de todos sus bienes. Sin embargo, los datos más importantes que nos proporcionan los escuetos encabezamientos de escrituras públicas de este memorial son las fechas concretas y los nombres de los autores, entalladores y pintores-doradores, de los dos grandes retablos oñatiarras.

En el inventario de los bienes hallados en su casa de Valladolid se consignan un elevado número de libros y diferentes escrituras sobre materia artística como las tres referidas a las intervenciones de Pierres Picart en la Universidad, “un contrato con maese Pierres Picarte sobre la obra del Colegio”, “un contrato con maese Pierres sobre los pilares del Colegio” y “otro conocimiento de Pierres Picarte, entallador”. Otras hacen alusión a su sepulcro como “otra scriptura para el obispo de Ávila de la entrega de la obra de su sepultura, que está signada de Antonio Rogel”, la carpintería del edificio como “el contrato de maestro Martín de Solaluze, carpintero, que está sygnado de Pedro López de Lazarraga”, la cerrajería como “un conocimiento y fiança de Reynaldo Troci de la obra de cerrajería del Colegio”, y la pintura y dorado del retablo de la capilla a la que haremos alusión en su capítulo específico¹¹.

I.2. Nuevos datos sobre el retablo de la Piedad

Sobre el retablo de la Piedad que preside su capilla en el lado del evangelio de la parroquia de San Miguel de Oñati, se conocían ya los nombres del tracista, Gaspar de Tordesillas y los autores materiales, los entalladores locales Andrés de Mendiguren, Miguel de Iragorri y Juan de Olazarán (seguramente pintor) y el imaginero vitoriano Juan de Ayala II. El 4 de junio de 1533 Rodrigo Mercado hacía una donación de 3000 ducados para la fábrica de un retablo y una reja con destino a su capilla de enterramiento, sita en el lado del evangelio de la citada iglesia. Por un informe del propio obispo sabemos que la obra de talla estaba concluida para el 26 de julio de 1536¹².

¹¹ A.R.Ch.V. Pleitos civiles. Quevedo. Fenecidos C 160/4. Inventario de bienes del obispo, fols. 155-158.

Ibid. Taboada. Pleitos olvidados C L,31. Juan López de Olarriaga contra Martín Saez de Soraluce, maestros carpinteros, sobre ejecución de sus bienes por 60 ducados que le debía por las obras de carpintería de la Universidad de Oñate.

¹² ARRAZOLA ECHEVERRIA, M^a A.: Op. cit., pp. 34-35.



Oñati. San Migelen parroquia.
Pietatearen erretaula.

Oñati. Parroquia de San Miguel.
Retablo de la Piedad.

1548ko memorialari esker, gainera, erretaula egiteko lanen kronologia zehatzaz osatu dezakegu informazio hau, margotze-urreztatze lanetan aritu zenaren izena emateaz gain inolaz ere¹³. 1535a zen Valladoliden “apezpikuak eta Valladolideko Gaspar de Tordesillas imajinaginak Oñateko erretaularako kontrataua” izenpetu zutenean. Urte berean kontsignatuta dago erretaula hau urezatzeko eta grabatzenko hitzarmen-eskritura ere, prelatu gipuzkoarraren eta Palentziako bizilagun eta pintore ospetsu Andrés Espinosa-ren artekoa; pintore honek, garai haietan, kaperako burdin-sare ikusgarria urezatzeko konpromisoa hartu zuen. Urte horretan bertan jasota daude, halaber, On Rodrigoren alde imajinaginak eta pintoreak emandako bi ordainketa-gutun,

Merced al memorial de 1548 podemos precisar y enriquecer esta información con la cronología exacta de la ejecución de este retablo, aportando además el nombre del pintor-dorador¹³. Fue en el año de 1535 cuando se formalizó en Valladolid el “*contrato del retablo de Oñate entre el obispo y Gaspar de Tordesillas*”, imaginero vallisoletano. En el mismo año se consigna también la escritura de convenio para el dorado y grabado de este retablo entre el prelado guipuzcoano y Andrés de Espinosa, afamado pintor, vecino de Palencia, quien por aquellas fechas se comprometió a dorar la espectacular reja de la capilla. En ese año se resenan asimismo sendas cartas de pago del imaginero y del pintor a favor de don Rodrigo, descargo que se repetirá en

Datu hauek dagoeneko aipatuta zeuden honakootan: LIZARRALDE, J.A.: Op. aip., 54. eta 56-57. orr., eta ZUMALDE, I.: Op. aip., 474-475. orr., 288. oharra.

¹³ V.E.K.A. Auzi zibilak. Lapuerta. Ahantziak C 738/3. Pedro de Santestebanek Avilako apezpikuaren aginduz eginiko eskritura publikoen memoriala.

Estos datos están ya citados en LIZARRALDE, J.A.: Op. cit., pp. 54 y 56-57, y ZUMALDE, I.: Op. cit., pp. 474-475, nota 288.

¹³ A.R.Ch.V. Pleitos civiles. Lapuerta. Olvidados C 738/3. Memorial de escrituras públicas expedidas por Pedro de Santesteban por encargo del obispo de Ávila.

eta deskargu hau atzera agertuko da 1536koan. Ikusi beza-la taila lana azken urte honetako uztailerako amaituta egonik, urezratze lanengatiko azkeneko ordainketa-gutuna 1537an dago jasota.

Valladolideko bizilagun **Gaspar de Tordesillasek**, bere buruaz ari delarik, imajinagin, eskultore-apaintzaile eta mihiatzzaile lanbideak aipatzen baditu ere, badirudi aipatu azkena zuela benetako espezialitate. Izen ere, bere biografia-ren berri zehatz-zehatzik ez dugu, eta oraindik ere gaurkotsuna aitortzen diogu bere garaian Martí y Monsók eskaini zion azalpen biografikoari, izenpetzen ez zekielako datua barne¹⁴. XVI. mendeko lehen hamarkadan jaio zen, eta mendearen bigarren herenean lanean segitzen zuen artean, dokumentatutako obra baitu 1535etik, urte horretan kontratu zuen Avilako apezpikuarekin Oñatioko San Miguel elizako Pietatearen kaperako erretaula, 1562 arte. Alonso Berruguetek Valladolid aldean izandako jarraitzaileetako bat da, eta oso obra handia du, tartean hainbat erretaula baitago, hala nola Isabel Hernández Aldereteen kaperakoa Simancasen (1536), San Benitoko komentuko San Antonena (1547), Valladolideko Eskultura Museo Nazionalean dagoena bera, eta San Martín de Valvenikoa (1553). Valladolideko San Benito-ren erretaulan ere parte hartu zuen, eta baita beste zenbait hilobi eta arkitektura galkorretan ere (1543). Era berean, Santiago de Dueñasko Ospitale zaharreko Deikundearen erretaula originala ere berea omen da; hala balitz, bere obra-rik goiztiarrenetako bat izango litzateke (c. 1530-1540), Antonio Vázquez¹⁵ margolariarekin egina gainera. Beste lan askotan ere elkarrekin aritu ziren. Pedro de las Heras pintorearen adiskide izan zen, are lan harremana ere izan zutelarik, eta honen testamentu-betearazlea ere bai (1557).

Andrés de Espinosa pintorea erretaulagintzara emana zen Burgosko dinastia artistiko bateko kidea izan zen. Hone-tan aipatzeko modukoak dira Andrésen anaiaik, Alonso eta Rodrigo, pintoreak hauek ere, eta batez ere hareb seme Migel, prestakuntza Diego de Siloerekin jaso zuena eta XVI. mendeko bigarren hereneko eskultore garrantzitsua izan zena. Burgosen bizi zirelarik, bere produkzioaren alerik onenak Palentzián daude, Santa Mariaren katedralean batik bat. Andrés de Espinosak burututako lanik handiena katedraleko erretaula nagusia urezratzea izan zen, bere anaia Alonsorekin batera egin zuen eta lan hori, “antzinako eta Erromako modu eta eran”, 1525 eta 1527 bitartean gutxi gorabehera. Lan honen aurretik, 1520an, huts egindako beste kontratu-eskritura bat izan zen, hiru Espinosa anaiek eta Palentziako pintore Pedro de Villoldo eta Diego de

el de 1536. Si para el mes de julio de este último año se había dado por concluida la obra de talla, como vimos, la última carta de pago por el dorado del retablo se anota en 1537.

Aún cuando **Gaspar de Tordesillas**, vecino de Valladolid, se titula indistintamente imaginario, entallador y ensamblador, parece ser que su verdadera especialidad fue esta última. Su biografía no es del todo bien conocida, resultando aún actual la semblaiza que en su día le dedicara Martí y Monsó, incluido el dato de que no sabía firmar¹⁴. Nacido en la primera década del siglo XVI, permanece activo en el segundo tercio de la centuria con obra documentada entre 1535, año en el que contrata con el obispo de Ávila el retablo de la capilla de la Piedad en la iglesia de San Miguel de Oñati, y 1562. Se trata de uno de los seguidores vallisoletanos de Alonso Berruguete, con una densa obra que comprende retablos como los de la capilla de Isabel Hernández Alderete en Simancas (1536), San Antón, del Museo Nacional de Escultura de Valladolid, procedente del convento de San Benito (1547) y San Martín de Valveni (1553). Intervino también en el retablo de San Benito de Valladolid y en obras varias como sepulcros y arquitecturas efímeras (1543). Asimismo se le atribuye el original retablo de la Anunciación del antiguo Hospital de Santiago de Dueñas que, de ser así, se trataría de una de sus obras más tempranas (c. 1530-1540), en colaboración con el pintor Antonio Vázquez¹⁵, con quien trabajó en otras muchas ocasiones. Disfrutó también de la amistad y trato profesional con el pintor Pedro de las Heras, de quien fue ejecutor testamentario (1557).

El pintor **Andrés de Espinosa** fue miembro de una dinastía artística burgalesa relacionada con la retablística, en la que merecen ser reseñados sus hermanos Alonso y Rodrigo, también pintores y, especialmente, su hijo Miguel, importante escultor del segundo tercio del siglo XVI, formado con Diego de Siloe. Avercadados en Burgos, lo mejor de su producción se localiza en Palencia, principalmente en su catedral de Santa María. La obra de más envergadura llevada a cabo por Andrés de Espinosa fue el dorado del retablo mayor catedralicio, que llevó a cabo con su hermano Alonso “al modo y manera de lo antiguo e romano” entre 1525 y 1527 aproximadamente. Esta intervención fue precedida en 1520 por otra escritura de contrato fallida, suscrita conjuntamente por los tres hermanos Espinosa, Pedro de Villoldo y Diego de Mayorga, pintores palentinos¹⁶. Todavía


¹⁴ MARTÍ Y MONSÓ, J.: Estudios histórico-artísticos relativos principalmente a Valladolid, basados en la investigación de diversos archivos. Valladolid-Madrid, 1901, p. 447. Semblaiza de Gaspar de Tordesillas.

¹⁵ Memorias y esplendores. Las Edades del Hombre. Palentziako Katedrala. Erakusketa katalogoa. Palentzia, 1999, 169-170. orr., 34. fitxa, J.M. Parrado del Olmo egina.

¹⁶ MARTÍ Y MONSÓ, J.: Estudios histórico-artísticos relativos principalmente a Valladolid, basados en la investigación de diversos archivos. Valladolid-Madrid, 1901, p. 447. Semblaiza de Gaspar de Tordesillas.

¹⁵ Memorias y esplendores. Las Edades del Hombre. Catedral de Palencia. Catálogo de exposición. Palencia, 1999, pp. 169-170, ficha nº 34 a cargo de J.M. Parrado del Olmo.

¹⁶ SAN MARTÍN PAYO, J.: “El retablo mayor de la catedral de Palencia. Nuevos datos”. Publicaciones de la Institución Tello Téllez de Mene-



Palentzia. Katedrala.
Sagrarioko kaperako
erretaula.

Palencia. Catedral. Retablo
de la capilla del Sagrario.

Mayorgak elkarrekin izenpetua¹⁶. Oraindik ere, toki askotan, jatorrizko urezatze eta polikromia mantentzen dira, eta hauetan nabarmentzeko modukoak dira aplikazio brokatu txiki batzuk, loreak, izarrak, eta beste motibo zigilatu batzuk, eremu urdinean grabatutako zonekin batera. Gure pintorearen mailaren lekuko garbitzat, Lehen Errenazimentu hispaniarren obra handi honetan parte hartu zuten beste maisu batzuk ditugu, hala nola Joan de Valmaseda eta Felipe Bigarni eskultoreak edota Joan de Flandes pintorea.

Bere obrarik onenek ekarpenean handia, erabakigarria egin zioten Palentziako katedraleko erretauletako eta burdinsare-

se conservan bastantes zonas con el dorado y policromía originales en la que destacan unos pequeños brocados de aplicación, flores, estrellas y otros motivos estampillados y zonas grabadas en campo azul. Avalan la categoría de nuestro pintor los nombres de otros maestros que intervinieron en esta gran empresa del Primer Renacimiento hispano, como los escultores Juan de Valmaseda y Felipe Bigarny o el pintor Juan de Flandes.

Sus mejores obras contribuyen decisivamente al exorno renacentista de los retablos y rejas de la catedral de Palencia. Junto al también pintor Cristóbal de Herrera, Andrés de Espinosa contrató en 1534 la pintura, dorado y estofado del


¹⁶ SAN MARTIN PAYO, J.: "El retablo mayor de la catedral de Palencia. Nuevos datos". Publicaciones de la Institución Tello Téllez de Meneses, 10 (1953), 299-306. orr. Contrato con los doradores del retablo mayor. Memorias y esplendores..., 112. or., 1. fitxa, F.J. de la Plaza Santiago gok egina.

ses, 10 (1953), pp. 299-306. Contrato con los doradores del retablo mayor.

Memorias y esplendores..., p. 112, ficha nº 1 por F.J. de la Plaza Santiago.

Oñati. San Migelen parroquia. Pietatearen erretaula. Erostia. (Arg. Artelan).

Oñati. Parroquia de San Miguel. Retablo de la Piedad. Lamentación. (Foto Artelan).



etako apaindura errenazentistari. Bera bezala pintorea zen Kristobal de Herrerarekin batera, Andrés de Espinosak, 1534an, Sagrarioko kaperako erretaula pintatzea, urezta-tza eta estofatza kontratatu zuen, 500 dukaten truke; lan hori egiteko, urtebeteko epea zuen¹⁷. Gure pintoreak urez-tatu eta esgrafiaturako beste obra bat San Gregorio Handia-ren erretaula da nonbait, 1536 inguruan polikromatua. Berak polikromatutako erretaulako azalek bikromatismo klasiko garbia erakusten dute, eremuetako kolore zuriaz eta, erromatar erako taila-apaindura jori eta xeherako,urre kolo-reaz osatua; izan ere, bikromatismo honen xedea marmolezko hilobi florentziarrak gogoraztea da. Konbinaketa bera ikusten da, urdin/urre bikromatismoarekin batera, Oñatiko Pietatearen erretaulan. Aplikazio brokatu errenazentista txiki batzuek, oraindik ere, hor diraute, elkarren gaineko apaindura hauek gotiko berantiarrean lortu zuten distira gogoratzen digutela, baina lanik zabalduenak erromatar erako esgrafiatuak dira, urdin eta gorri koloreko eremuetan eginak, eta mendel eta bandetan kokatuak. Behin eta berriz erabilitako motiboak kapiteletako kiribildura gisako landareak, tuniketako erronbo eta zirkuluak, eta hondoetako xake-taula gisakoak dira, baina beste esgrafiatu edo ziztan mota batzuk ere ikusten dira, begite lanak esaterako¹⁸.

¹⁷ GARCIA CUESTA, T.: "La Catedral de Palencia según los protocolos". B.S.A.A., XIX (1952-1953), 67-69 eta 77-79. orr. 19. dokumentu eranskina. Andres de Espinosa eta Kristobal de Herreraen kontrataua, Palentziako katedraleko Sakramentuaren kaperako erretaula urezatzeko.

PARRADO DEL OLMO, J.M.^a: Los escultores seguidores de Berruguete en Palencia. Valladolideko Unibertsitatea. Valladolid, 1981, 58 eta 106. orr.

¹⁸ Andres de Espinosak Pietatearen erretaulan eginiko lan eta urezta-zeak distiratsu ageri zaizkigu berriro, Artelan enpresak burutu duen zaharberritze lanari esker. LATORRE ZUBIRI, J.: Retablo de la Piedad (Oñati). Restauración, 21 de mayo a 21 de junio de 1999. Donostia-ko Elizbarrutiko Museoa. Donostia, 1999.

retablo de la capilla del Sagrario por la suma de 500 ducados, obra que debía concluir en el plazo de un año¹⁷. Otra obra dorada y esgrafiada por nuestro pintor debe ser el retablo de San Gregorio Magno, policromado hacia 1536. Las superficies de los retablos por el policromados muestran el clásico bicromatismo de blanco para los campos y oro para la profusa y menuda decoración tallada del romano, con la que se pretende evocar los sepulcros florentinos de mármol. La misma combinación se aprecia, junto al bicromatismo azul/oro en el retablo de la Piedad de Oñati. Aún cuando todavía perviven algunos pequeños brocados de aplicación renacentistas, que recuerdan el esplendor alcanzado por estas decoraciones superpuestas en el Tardogótico, las labores más generalizadas son los esgrafiados del romano en campos de azul y rojo que se localizan en cenefas y bandas. Los motivos recurrentes son vegetales como roleos y geométricos como rombos y círculos en túnicas o ajedrezados en los fondos, apreciándose asimismo trabajos artesanales de grafio como los ojeteados¹⁸.

¹⁷ GARCIA CUESTA, T.: "La Catedral de Palencia según los protocolos". B.S.A.A., XIX (1952-1953), pp. 67-69 y 77-79. Apéndice documental, nº 19. Contrato de Andrés de Espinosa y Cristóbal de Herrera del dorado del retablo de la capilla del Sacramento de la catedral de Palencia.

PARRADO DEL OLMO, J.M.^a: Los escultores seguidores de Berruguete en Palencia. Universidad de Valladolid. Valladolid, 1981, pp. 58 y 106.

¹⁸ El dorado y las labores ejecutadas por Andrés de Espinosa en el retablo de la Piedad brillan de nuevo resplandecientes, gracias a la restauración llevada a cabo por la empresa Artelan. LATORRE ZUBIRI, J.: Retablo de la Piedad (Oñati). Restauración, 21 de mayo a 21 de junio de 1999. Museo Diocesano de San Sebastián. San Sebastián, 1999.